

## 1. GABON, GABON!

(abenduak 24)

Gabon, gabon!  
Igeldoarrak, gabon da berri on!  
Zeru ta lurak alkartu dira  
gaur argi honetan,  
Jaungoikoaren pakea dabil  
sendi guztietan  
Gabon, Gabon!  
Igeldoarrak gabon da berri on!

## OLENTZERO!

(abenduak 31)

Olentzero!  
Berri onakin txoraturik dago!  
Txondarretako ikatz onenak  
ditugu opari  
hotzak daukagun Belengo Jesus  
jaio berriari  
Olentzero!  
Berri onakin txoraturik dago!

## 2. EGUBERRI GIROZ

Eguberri giroz }  
bildurik honera } bis  
alaitu gaitezen }  
guztiok batera }  
Jesus haurtxoa ere }  
laister jaiko da } bis  
beraren etorreraz }  
danok pozten gera }

Egunak politak }  
dira hauek oso, } bis  
Gabon kantu goxoz }  
etxe eta auzo. }  
Turroi pixka bat jan, }  
opariak jaso, } bis  
guraso ta senide }  
denak goxo-goxo. }

Alai eta pozez }  
gaitzela bizi } bis  
aurtengo urtea }  
badoa ihesi. }  
Bi mila ..... garrena }  
beharko ikusi } bis  
zoriontsu bukatu }  
zoriontsu hasi. }

## 3. NAHIKO GENUKE

Urte berria hasi nahi degu  
abesti berriez alaiturik,  
etxez etxe, baserriz baserri  
ditugun nahiak azaldu nahirik.

Nahiko genuke gure seme-alabak } bis  
bakean bizitzea }  
eskutikan harturik }  
denok maitatzea, }  
elkarlanean herriak nahi duena } bis  
errespetatzea. }

Urte berria hasi nahi degu...

Nahiko genuke azkeneko bertsoa } bis  
eskaintzea zuri. }  
Arraultz haundi hori }  
gure Olentzerori, }  
nahiz ta askotan gaizki portatzen garen } bis (2  
aldiz)  
opari bat ekarri // (2.ean) mesedez ekarri

#### 4. OLES TA OLES

Oles ta oles, etxekotxuak  
nik jotzen ditut atiak,  
nik jotzen ditut atiak eta  
ondo erantzun jendiak.

Hau haizearen epela  
airean dabil orbela  
etxe hontako jende leialai  
gabon Jainkuak diela.

Oles ta oles...

Esku txuritan papera  
mahaia urrez platera  
lotsa gogorrez heldu gerade  
jauna berorren atera.

Oles ta oles...

Horra hor goian izarra  
errekaldian lizarra  
etxe hontako nagusi jaunak  
urre gorrizko bizarra.

Oles ta oles...

Etxeko andre zabala  
toki oneko alaba  
bidean nator informaturik  
limosnerua zerala.

#### 5. GABON

Gabon, Gabon, Gabon  
goazen Belenera  
Gabon, Gabon, Gabon  
Jesus ikustera.

Izar zuri eder dizdiratsu bat  
dugu gaur guk gure gidaria  
etxe honetara sartu dadila  
zeruko izar horren argia

Gabon, Gabon, Gabon...

Nola guztiak txintxo izateko  
mundu hontara ez ginen jaio  
ikatzarekin gelditzea ere  
baten bati tokatuko zaio

Gabon, Gabon, Gabon...

Olentzero maiteak opariak  
denontzat ekarriko al ditu?  
Agur denoi gabonak ondo pasa  
eta zapatak ondo garbitu

Gabon, Gabon, Gabon... (bis)

#### 6. OLENTZERO JOAN ZAIGU

Olentzero joan zaigu  
mendira lanera,  
intentziuarekin  
ikatz egitera.  
Aditu duenian  
Jesus jaio dala,  
lasterka etorri da  
berri ematera.

Horra, horra, gure Olentzero  
pipa hortzetan dula  
eserita dago,  
kapoiak ere ba(d)itu  
arraultzatxuakin,  
bihar meriendatzeko  
botila arduakin.

Olentzero guria  
ezin degu ase  
bakarrik jan dizkigu  
hamar txerri gazte  
saiheski ta xolomo  
makina bat beste  
Jesus jaio da eta  
kotsola zaitzte.

Horra, horra...  
(...botila arduakin, KIN, KIN!)

## 7. HATOR, HATOR

Hator, hator mutil etxera  
gaztaina ximelak jatera  
Gabon gaua ospatutzeko  
aitaren ta amaren onduan  
ikusiko dek aita parrezka  
amaren poz atseginez.

Eragiok, mutil  
aurreko danbolin horri  
gaztainak erre artean (bis)  
txipli txapla pun!  
Gabon gaua pozik igaro  
dezagun.

## 8. OLENTZERORI KOPLAKA

Hemen da gure Olentzero,  
etortzen zaigu urtero,  
opari asko ekartzen ditu  
ondo portatu ezkeru.

Heldu zaizkigu Gabonak,  
aurten izan gara onak,  
etxean zauden herritar horri  
gabon eta zorionak!

Hemen da gure Olentzero...

Ikazkin maitagarria  
menditikan etorria  
zure zain utzi dugu etxean  
zapata bana jarria.

Hemen da gure Olentzero...

Etxeko giro epelean,  
guztiak gaurko gauean,  
gaur denok txintxo ohera eta  
sorpresa bihar goizean.

Hemen da gure Olentzero...

Mendira bueltan zoaz zu,  
pozik utziko gaituzu,  
hurrengora arte Olentzero ta  
bihotzez milaka muxu.

Hemen da gure Olentzero...

## 9. AI HAU GAUAREN

Ai hau gauaren zoragarria  
Jesus jaio da Belenen;  
etxe honetan sartu ote da?  
Bila gabiltza,  
bila gabiltza,  
bila gabiltza beraren.

Kantari hasi gera  
gaur ordubietan, (din dan,din dan)  
berri ona zabaltzen  
bazter guztietan;  
ohitura zaharra degu  
Euskal Herrietan,  
zuek ibil zinatzen  
mutil koxkorretan.

Ai hau gauaren...

Hogeita laugarrena  
degu abenduan, (aa,aan)  
desio genduena  
iritsi genduan;  
gaueko hamabiak  
jo duten orduan,  
Jesus salbatzailea  
jaio da munduan.

Ai au gauaren...

## 10. BERTSO ZAHARRAK

Zorionak emanaz  
igeldoarrari,  
oso pozik gabiltza  
soinu ta abeslari  
jarrai behar diogu  
ohitura zaharrari bis  
bertsoak abestuz  
jaio berriari.

Abenduak hogeita  
laugarren eguna  
hemen gaudenak pozez  
betetzen gaituna  
adierazten gabiltza  
gaur entzun deguna bis  
Belenen jaio dala  
desio genduna.

Denak nahi ezik utzi  
zuten estalpian  
Jesus jaio zitzaigun  
geu ilun batian  
han adierazi zigun  
modu ederrian  
denok berdin generala  
beraren aurrian.

Gauza asko zitun berak  
guri esateko  
mundua egin zuela  
alkar maitatzeko  
bertako herri guztiak  
libre izateko bis  
hau nahikoa ez al da  
bihotza pozteko?

Herri hauen artean  
dago Euskal Herria  
zapaltzaileak bere  
mendean jarria  
ase dedila eskatuz  
gure egarria bis  
maita dezagun alkar  
maita aberria.

## 11. HAUR EDER BATEN BILA

Haur eder baten bila  
gabiltza zoratzen  
ta izarrak esan digu  
galdetzeko hemen

Jaungoikoaren herri  
maite Jerusalem bis  
esan zaiguzu laister  
haurra non jaio den.

Izar bat agertu da  
diz-dizka zeruan  
keinuka ari zaigu  
Gabon gauerdian.

Jaungoikoaren herri... (bis)

## 12. GAUEKO IZAR

Gaueko izar argitsuena  
piztutzeakin batera,  
haurtxo eder bat etorri zaigu  
gaur arratsean etxera.  
Ordu ezkeroko etxeko denak  
poztu ta zorutzen gera,  
haurra dalako zerutik honuntz  
datorren Jainko berbera.

} bis

Alai ta pozik kanta dezagun  
haurtxo honen etorrera,  
gure iluna alaitutzeko  
jaio dan argi ederra.

Gaurtik aurrera atzerri hontan  
zorionekoak gera,  
haurra dalako zerutik honuntz  
datorren Jainko berbera.

} bis

## 13. ELURRA

Elurra txuri txuri zen,  
pekatu lohiak estaltzen;  
mundua lo goxoan zala  
Jesus jaio da Belenen.  
Jo txirula, jo danbolin!  
eztai ona dutela egin,  
zeru ta lurra alkarrekin.

Hau haiziaren epela  
airian dabil orbela  
etxe hontako jende leialai  
gabon Jainkuak diela.

Dios te salbe bakailau jale  
sei ta bost dia hamaika,  
odolkirikan ez baldin bado  
berdin zaigula lukainka.

Elurra txuri txuri zen...

Ate honek zulua,  
ezin kabitu besua;  
zulo hontatik ikusten degu  
lukainka mutur goxua.  
Hor goien iturri  
ura pir, pir, pir etorri  
etxe hontako etxeoandriak  
Ama Birjina dirudi.

Elurra txuri txuri zen...

#### 14. OLENTZEROREN OPARIA

Astoa gaixo dago.  
Olentzero tristerik.  
Txabola ikatzez beterik,  
pilan-pilan udazkenetik.  
Ez dauka txabola uzterik,  
ez etxez etxe ibiltzerik.

Horra, Olentzero  
pipa hortzetan.  
Gauetz ibiltzen da  
negu hotzetan.

Larri daude auzoan.  
Ikatzik ez neguan.  
Han egongo da Olentzero,  
suaren ondoan txit bero.  
Noiz jaitsiko da txabolatik  
galdetzen du Josepantonik.

Horra, Olentzero...

Bi lagun joan dira  
elurretan mendira.  
Aizu Olentzero, zergatik  
ez duzu ekartzen ikatzik  
Ezin dut ikatzik banatu,  
mesedez, astoa sendatu.

Horra, Olentzero...

Arrantzaka astoa  
sendatu da gaixoa.  
Eskerrik asko amonari  
eta bere kataplastari.  
Geroztik gure olentzero  
herrira jaisten da urtero.

Horra, Olentzero...

#### 15. LO DAGO HAURTIXOA

Lo dago gure haurtxoa  
Sehaska goxo beroan  
Olentzerok ekarriko  
Dionaren esperoan (bis)

Ta bitartean  
Gabon gauean  
Olentzero dator  
Gurdi gainean (bis)

Ikazkinarekin amets  
Egiten du haurtxoak  
Jostailu berriak eta  
Karamelo goxoak (bis)

Ta bitartean... (bis)